





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



IKASLE IJITOEN ESKOLATZEA HOBETZEKO ORIENTABIDEAK



Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko orientabideak

2023ko martxoa



Aurkibidea

↳ Sarrera	7
↳ 1. Ikasle ijitoen eskolaratzearen egoera	9
1.1. Azken urteetako aurrerapen esanguratsuenak	9
↳ 2. Gaingitu beharreko oztopoak	11
2.1. Ikaskuntzarekin eta bizikidetzarekin lotutako oztopoak	11
2.2. Kultura desberdinekoak izatearekin lotutako oztopoak	12
2.3. Familiaren eta eskolaren arteko harremanarekin lotutako oztopoak	13
↳ 3. Jarduera proposamenak	15
↳ 4. Beste dokumentu lagungarri batzuk	17
4.1. «Ijitoak: azoketatik eskolara eta institututik etorkizunera» ikerketatik ateratako gomendioak	17
4.2. Jarduera eta estrategia metodologiko inklusiboak	19
4.3. PROA+ palanka-jardueren katalogoa. 21/22 ikasturtea	21

Sarrera

Ikasle ijitoak hobeto eskolatzeko, ikastetxeak inklusioa gogoan hartu behar du hezkuntza emateko garaian, horrek sortuko baitu gizarte-kohesioa eta berdintasun-giroa ezberdintasunak errespetatzeko, baita genero-ezberdintasunak ere. Horrek ez du inondik ere neska-mutilen ikasketetan izan beharreko efizientzia gutxituko, eta ez dio oztoporik jarriko bakoitzak bere bizitza-proiektua garatzeko askatasunari, bakoitzaren muga sozialak, generoaren ingurukoak edo gorabehera ekonomikoak dena delakoak izanda ere.

Gainera, beharrezkoa da hezkuntza-planteamenduak Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen datozen 20 urteetarako zehaztutako gomendioetara egokitzea; izan ere, gomendio horien arabera, Batasuneko estatu kideek ahalegina egin behar dute ijitoen kontrako joeraren gurgil eroa geldiarazteko, esparru orotan. Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Kontseiluko Batzordeak (ECRI) honela definitzen du antigitanismoa: "Arrazismo modu espezifikoa da, arraza nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, diskriminazio historikoak elikatutako deshuminazio eta arrazismo instituzionalaren modu bat, besteak beste indarkeriaren, gorrotoaren diskurtsoaren, esplotazioaren, estigmatizazioaren eta diskriminazio nabarmenenaren bidez adierazten dena".

Oso dokumentatuta dago ijitoena giza talde baztertuenetakoa dela. Zehazki esanda, ijitoen historia diskriminazio-gertaerez josia dago, kartzelan sartu izan dituzte, segregazioa jasan dute, beren kultura asimilatzeke ahaleginak egin dira, eta inoiz ez dute inolako aitortzarik izan. Ondorioz, gertaera horiek ijitoak gizartetik baztertuta geratzea eragin dute, eta, jakina, hori eskolan ere igartzen da: garaiz aurretik lagatzen dute eskola, eta ikasketa-maila baxuetan geratzen dira.

Era berean, ijitoen diskriminazioa oinarritzko eskubideen esparruan kokatzen du, eta, hortaz, Batasunak eta bere estatu kideek betebeharra daukate, "betebeharren titular" diren aldetik, ijitoen oinarritzko eskubideak defendatzeko, ijitoen aurkako joerak eragindako eskubide-uraketak ikusita (Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren (FRA) inkestek argi asko dokumentatu dute).

Egoera hau gainditzeko, Europar Batasunak honako hau proposatzen du: jatorri etnikoagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzea; enplegu-maila handia sustatzea, gizarte-babes egokia izango dutela ziurtatzea, gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea eta hezkuntza- eta prestakuntza-maila handia ematea eta osasuna behar bezala babestea.

Ildo horretatik bertatik datoz NBEk ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). Zehazki, 4. helburuak (Kalitatezko Hezkuntza) hauxe ziurtatu nahi du: "kalitate oneko hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa, eta pertsona guztiek bizitza osoan zehar ikasteko aukerak izatea sustatzeko konpromisoa". 2030. urterako, pertsona guztiek goi-mailako hezkuntza jasotzeko aukera berdina izango dituztela bermatzeko ezarri da helburu hori, eta horren barruan sartuta dago generoak, etniak edo beste ahulezia batzuek eragindako desberdintasunak ezabatzea ere.

Horregatik, beharrezkoa da gure eskola eta ikastetxeek honako hezkuntza- eta pedagogia-planteamendu hauek garatzea:

- **Irakasteko/ikasteko prozesuak hobetu eta aberastu behar dira**, oinarrizko gaitasunak eta gaitasun espezifikoak erabat garatu ahal izateko. Helburua da ikasleek derrigorrezko oinarrizko hezkuntzarako eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzarako ezarritako irteera-profila lortzea. Horretarako, ikasleek batzuen eta besteen aniztasuna barneratzeko moduan kudeatu behar dira ikasgelak, eta denek har dezaten parte jardueretan eta helburuetan –abiapuntua edozein izanik ere–, eta ikasleak gehiago jardun daitezzen batzuk besteekin. Interakzioak kalitatezkoa izan behar du, ikaskuntza horiek eskuratzeko, ikasi beharrekoa ikasteko moduan. Horretarako, ikasleek oinarrizko gaitasunekin eta gaitasun espezifikoekin lotutako jarduerak izango dituzte, eta horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen duten ekintzak landu behar dira.
- **Kulturarteko hezkuntza-proiektua landu behar da**, antigitanismoa identifikatu eta haren aurkako jarrera hartuko duena. Besteak beste, jaso behar ditu ijitoen historia eta kultura eta haien erreferente kulturalak, haiek ere gizarteko partaide dira eta. Hala, aintza eta onarpena emanez, eskoletan harreman positiboak izango dituzte ikasle ijitoek eta ijito ez direnek, batzuen eta besteen familiek, bai eta irakasleekin ere.
- **Hezkidetzako eta berdintasunezko proiektu bat landu behar da**, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko helburua ere izango duena. Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien jokabidezko eredu soziokulturalen arabera sortu ditugun aurre-uste, estereotipo eta rolak ezabatu behar dira. Helburuak honako hauek dira: ikasleentzako –neska zein mutil– garapen pertsonal integralerako aukerak bermatzea, diskriminazio eta indarkeria mota oro baztertzea, eta generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionala ziurtatzea.
- **Hezkuntza-etapa batetik bestera jarraitutasunez igarotzea bermatu behar da**; horretarako, neurri eta laguntza batzuk ezarri behar dira, eta orientazioa eman behar zaie ikasleei eta haien familiei.
- **Irakasleek hobeto ezagutu behar dituzte ikasle ijitoak, eta espektatiba hobeak izan**, haien ikaskuntza hobetzeko.
- **Komunikazio-bide eraginkorrak ezarri behar dira familiekin**, elkar ezagutu eta ulertzeko eta familiek konfiantza izan dezaten eskolan, seme-alabek aitortza, hezkuntza eta balorazioa jasoko dutela jakinda, eta hezkuntza-prozesuan lankidetzak eskainita.

1. Ikasle ijitoen eskolaratzearen egoera

«Una preocupación persistente: el antigitanismo como barrera para la inclusión de los gitanos (FRA, 2018)» izeneko txostenak adierazten duenez, Europan bigarren hezkuntza utzi zuten ikasle ijitoen batez bestekoa jaitsi egin zen arren, 2016an % 68 zen oraindik, eta ehuneko hori % 95era igotzen da bigarren hezkuntzaren osteko ikasketak egiteko adinean dauden gazteen artean. Azken urteotan hobera egin duen arren, hezkuntza-egoera horrek eragina du ijito-komunitatea lan-merkatuan aukera berdinetan sartzeko. Zehazki, 2015ean, ordaindutako enplegu-tasa askoz txikiagoa da 20 eta 64 urte bitarteko ijitoentzat, % 43, Europako batez bestekoaren aldean: % 70. Era berean, alde nabarmenak daude gazteen artean: 16 eta 24 urte bitarteko ijito gazteen % 63 ez dabil ez lanean ez ikasten, eta Europako batez bestekoa % 12koa da.

Bestalde, Euskadin azken urteetan funts publikoekin sostengatutako ikastetxeak A eredutik B eta D ereduetara aldatu dira, eta ia ikasle ijito guztiak eredu horietan matrikulatuta daude.

Halaber, bizi diren inguruko ikastetxeetan eskolatuta daude ikasleak, gehienak behintzat. Familia ijitoak hiru lurraldeetan banatuta dauden modua dela-eta, ikasle ijitoen banaketa ere desberdina da hiru lurraldeetan:

- Araban, Gasteizen eta Arabako Errioxan daude eskolatuta batez ere; toki horietan daude ikasle ijitoen ehuneko handienak dituzten ikastetxeak.
- Bizkaian, ijito-populazio askoz ere handiagoa dago: Bilbo Handian daude ikasle ijitoen ehuneko handienak dituzten ikastetxeak.
- Gipuzkoan oso sakabanatuta daude. Oso ikastetxe gutxi dituzte ikasle ijito asko (30 ikasle ijito baino gehiago).

1.1. AZKEN URTEETAKO AURRERAPEN ESANGURATSUENAK

Ikasle ijitoen egungo eskolatzeko-egoera deskribatzen hasita, garbi ikusten da erkidego honetan bizi diren ikasle ijitoen ikaskuntza eta parte-hartzea eragozten duten oztopo ugari daudela oraindik ere; halere, azken hogeitaz urteok kontuan hartuta, aurrerapauso handiak egin dira, eta azpimarratzekoak dira:

- Lehen Hezkuntzako etapan, ikasleen ia % 100 dago eskolatuta. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eskolatzeko-egoerak gero eta altuagoak dira. Ikasle ijitoak Bigarren Hezkuntzan sartzea nahiko normalizatuta dago, nahiz eta derrigorrezko etapa horretan hasten diren batzuetan piper egiten eta eskola-absentismoa. Are gehiago, eskolara sarri joaten diren ikasle batzuek ez daramate gelari legokiokoen ikaskuntza-maila bera. Sarritan, errepikatzaileak izaten dira, eta, azkenean, haietako askok 16 urterekin erabat uzten dute eskola, DBHko 4. mailako ikasketak egin gabe, eta askok ezta 3.ekoak ere.
- Orain hasi dira ikasle batzuk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza titulua eskuratzen, eta horietako batzuek derrigorrezkoak ez diren ondoko ikasketekin jarraitzen dute.

- Ijito-familiak gero eta interes handiagoa dute seme-alaben hezkuntza akademikoan, eta horrek eskolaren eta familien arteko sintonia ona izatea eragiten du, familia horiek gehiago inplikatur hezkuntza-prozesuan. Era berean, gero eta ijito-familia gehiago hasten dira ikusten zein garrantzitsua den beren seme-alabek derrigorrezko hezkuntza amaitzea eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketekin jarraitzea, nahiz eta askotan eskola-porrota oso oztopo gogorra duten. Horrekin batera, emakume ijitoen sektore batentzat hezkuntza funtsezko tresna da desberdintasunak gainditzeko; horregatik, gero eta gehiagok aldarrikatzen dute hezkuntza inklusiboa eta hezkidetzan oinarritua.
- Ikastetxe batzuk estrategia inklusiboak gauzaten hasita daude, eta emaitza onak jasotzen; besteak beste, familiekiko lankidetzak hobetu dute, ikasle ijitoak eskolan arrakasta lortzen ari dira eta ikasten jarraitzen dute.
- Erakundeek ere zenbait proposamen egin dituzte ikasle ijitoak eskolan hobeto ibiltzen laguntzeko: Aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa, Absentismoa prebenitzeko programa, ijito-erakundeei zuzendutako deialdia ikastetxeekin lankidetzan jardun dezaten, Ijito herriaren kontseiluaren plan estrategikoa...

2. Gainditu beharreko oztopoak

Eskola inklusiboaren ikuspegitik begiratuta, badakigu ikastea eta parte-hartzea oztopatzen duten langak nola sortzen diren: jendeak inguruarekin, besteekin, erakundeekin eta beste eragileekin dituen hartu-emanetatik. Langa horiek gizartean, luze-zabal, hedatuta dagoen antigitanismoarekin eta gutxiengo kulturei eragiten dieten beste dinamika sozial batzuekin lotuta daude, baita hezkuntza-ikuskerak eta sinesmen jakin batzuekin ere.

Oro har, joera daukagu ikasleen zailtasunak, ikasle ijitoenak barne, banakako faktoreetan edo familia-faktoreetan kokatzeko. Hala ere, eskola inklusiboak eta hezkuntza-ikerketak azpimarratzen dute beharrezkoa dela pertzepzio hori aldatzea. Horretarako, ikasle horiek dituzten oztopoak identifikatu behar dira, eta egungo egoera eraldatzeko eta gainditzeko gakoak bilatu behar dira. Honako hauekin zerikusia duten oztopoez ari gara: *ikaskuntza eta bizikidetzak, kultura-desberdintasuna, familia-eskola harremana, baliabideak eta generoa*.

2.1. IKASKUNTZAREKIN ETA BIZIKIDETZAREKIN LOTUTAKO OZTOPOAK

Gizartean ez dago espektatiba handirik ikasle ijitoekin, haiek ikasteko dituzten aukerei edo interesari dagokienez. Gure ustez eskolak badu gaitasuna eraldatzaile izateko, hau da, eskolak egiten duen lanaren arabera, desberdintasunak behin eta berriz sortu daitezke, edo egoera eraldatu daiteke, eta ikasle guztientzako hezkuntza-berdintasuna sustatu.

Oztopo horrek eragina izan du irakasleen, familien eta ikasleen espektatibetan, eta, horren ondorioz, ikastetxe gehienetan minimoen curriculumak planteatu da, eta ez maximoena, egungo egoera gainditzeko. Horrek, “esan eta bete profetia” gisa funtzionatzen du eta ikasleek eskolarekiko eta beren gaitasunekiko dituzten jarrera negatiboak indartzen ditu. Era berean, familia batzuek eskola-jarduerak ez dutela balioesten azpimarratzen du. Horrek guztiak ez du laguntzen ikaskuntzak hobetzen eta eskola-arrakasta lortzen.

Zenbait ijito-familiak uste dute beren seme-alaben prestakuntza akademikoak ez duela eragin zuzenik haien bizi-kalitatearekin hobekuntzarekin. Familiek zera ikusten dute, oso txikitatik porrot egiten dutela eskolan, eta horrek gurpil geldiezina jartzen du martxan: ezin dute behar bezala aprobetxatu prestakuntza, baldintza onenetan.

Ikasle ijitoak haien gabeziatik perzibitzen ditugu, eta ez haien gaitasunetatik. Oinarrizko gaitasunak behar bezala lantzekotan, ezinbestekoa da ikasle ijitoek berez dituzten gaitasunak eta ahalmen guztiak aintzat hartu eta hortik abiatzea, bestelako ikasteko aukera denak lantzeko.

Bada, ikasleek lehenagotik dituzten ezagutzetan oinarritu eta hortik aurrera ikaskuntza berriak planteatzeak gabezien pertzepzioa indartzen du eta ikaskuntza atzeratzen du. Vygotskyren arabera, garapenari aurrea hartzen dion ikaskuntza da ikaskuntza ona; beraz, kalitatezko ikaskuntza-elkarrekintzak

planteatu behar dira ikasle guztientzat, denek parte har dezaten batzuen eta besteen laguntzarekin, eta, horrela, atzetik doazenen ikaskuntza bizkortu.

Antolaketa kanporazalea. Laguntzak ikasgeletatik kanpo antolatzeke joera dago, edo bakoitzaren mailaren arabera jarduera ezberdinak eginarazteko, baina joera horrek ez du nahi bezalako emaitzarik ekartzen, eta eskolan gainerako ikasleekiko harremanak ere ez ditu hobetzen. Gainera, ez da erraza atzean geratzen diren ikasleak bere kasa moldatzea gainerakoek ez bezalako lana aurrera ateratzeko, eta, ondorioz, eskolan dauden denbora guztia ez da ikaste-denbora. Hortaz, esan dezakegu mota horretako neurriek ez dutela eskola-emaitzarik hobetzen, eta, gainera, bizikidetzaz zaildu dezaketela, eta estereotipoak eta aurreiritziak sendotu.

Etxe batzuetan, ez dago baliabide akademiko eta teknologikorik, hau da, ordenagailurik, libururik eta abar. Beste batzuetan, halakoak badituzte ere, ez dute uste hezkuntza-laguntza aproposa direnik. Familia ijitoak berriki eta pixkanaka hasi dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen.

Ikasleei kosta egiten zaie Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara iragatea eta Bigarren Hezkuntzan segitzea. Aldaketa handiak gertatzen dira etapa batetik bestera pasatzean, eta eskolako martxa ere ezberdina da. Eskola-arrakasta baxuak, eta familiek ez ezer askorik espero izateak eskolatik, batzuetan, arrazoi ezberdinengatik, neska-mutilek eskolatik kale egitea edo joateari uztea eragiten du.

2.2. KULTURA DESBERDINEKOAK IZATEAREKIN LOTUTAKO OZTOPOAK

Ez ditugu ezagutzen eta ulertzen bata bestearen balioak, ohiturak eta dinamikak. Gehiengoaren gizartean, kultura desberdinak ez dira parekotasun hartzetik hartzen eta, gehienetan, gutxiengoaren kultura bati buruz hitz egiten dugunean, aurrez ezarritako estereotipoak azpimarratzeko izan da, edo are antigitanismoa erakusteko.

Ijito batzuen jokabide txarra ijito guztiengana hedatzeko joera dago. Horrek eragina du hezkuntza-komunitatean, ijitoen kultura ezagutzen ez dutenez, ijitoekiko aurreiritzi eta estereotipo asko bereganatzen baitituzte, ia denak negatiboak.

Ez dago ijitoen erreferente kulturalik, ez osagairik ez ijitoa den inor. Alde batetik, ijitoen erreferenteak falta dira ikastetxeetan, eta horren eraginez, kosta egiten da hezkuntza-erakundearekin identifikatzea. Gainera, ikastetxean ez dira lantzen ijitoen historia, hizkuntza eta kultura. Hori dela-eta, ikasle ijitoek ez dute beren kulturaren erreferentziarik aurkitzen. Alde batetik, zailagoa dute ikastea, ez dutelako ez beren burua ez beren nortasun kulturala ikusten. Beste alde batetik, ijito ez direnak ijitoak ezagutu gabe geratzen dira: azkenean, ijitoen gaineko aurreiritzi eta estereotipo berak bereganatzen dituzte. Gainera, neska-mutil ijitoek ez dute goi-mailako ikasketak egindako jende asko ikusten beren inguruan, edo Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu duen ijitorik.

2.3. FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANAREKIN LOTUTAKO OZTOPOAK

Ikastetxearen eta familien arteko komunikazioa, batez ere, idatziz egiten da. Ijito-familia guztiak ez daude behar beste alfabetatuta, eta, beraz, bide hori ez da komunikatzeko bide baliagarria familia askorentzat. Bestalde, askotan telefonoko deiak seme-alabekin izandako gorabeheraren baten berri emateko izaten direnez, telefonoa ere ez da komunikazioa eroso bideratzeko modua izaten.

Familiak askotan uste dute ezin dutela askorik lagundu seme-alaben eskola-prozesuan. Familiak loturak hobetzea, haien ekarpenen balioa nabarmentzea eta ikastetxeetan parte hartzeko prozesuak sortzeko eskatzea dira egoera horri buelta emateko egin daitezkeen ekimenetako batzuk.

Auzo eta herri askotan, harreman gutxi dute ijito-familiak eta hezkuntza-komunitateko gainerakoek. Horregatik, ikastetxeetan eskola-kontuetan parte hartzeko tarte handirik ez dagoenez, eta aurreiritzi eta estereotipo asko dagoenez, azkenean ijitoek ez daukate aukera handirik eskolan parte hartzeko eta eskolako komunitatekoekin harremana izateko.

3. Jarduera proposamenak

Irakaskuntza-ikaskuntza-prozesuak hobetzeko eta curriculum-a aberasteko kulturarteko **hezkuntza-proiektuak sustatzea**.

- Ikasgelan antolakuntza inklusiboa bultzatzea: Ikasle ijito guztiek oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko, irakaskuntza-ikaskuntza-prozesuak hobetzeko beharrezko baliabideak jarri behar ditu ikastetxeak. Horretarako, era jakin batean antolatu behar dira bai ikasgela bai baliabideak, ikasteko giro pizgarria izan dezaten, ikasleek interakzio gehiago eta era askotakoak izan ditzaten batzuek besteekin. Horrez gain, ikasleek beste testuinguru batzuetan, ikastetxetik kanpo, dituzten eta erabiltzen dituzten ezagutzak onartu eta baloratu behar dira.
 - Ikasgela barruko errefortzu-baliabidea jarri behar da (bi irakasle ikasgela barruan).
 - Interakzioak sustatzeko moduan antolatu behar da ikasgela: talde interaktiboak, literatura-solasaldiak, curriculum-solasaldiak, hainbat gaitako babesleak (irakurlea, matematikariak), ikasketa kooperatiboa...
 - Komeni da komunitateko jende gehiago sistematikoki sartzea geletako ekintzetan eta eskolako batzordeetan. Ahalik eta aniztasun handiena bilatu behar da: unibertsitateko edo goi-mailako ikasle gazteak, ikasketak dituzten eta ez dituzten senideak, adinekoak, kultura-aniztasuna.
 - Berdinen arteko laguntza-sistemak garatu behar lirateke.
- Ikasteko denbora eta espazioak areagotu behar dira: baliabideak jarri jolastokia, eskola-jantokia eta eskolaz kanpoko jarduerak hezkuntza-espazio izan daitezten (liburutegi tutorizatuak).
- Ume ijitoak ume-umetatik eskolatzea sustatu behar da, haiek euskalduntzea erraztuko duten ereduetan eskolatzea, hartara, haur guztiek dituzten gaitasunetatik abiatzen diren metodologiak eta jarduerak erabiliz, oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko hasieratik.
- Ijito kultura txertatu behar da curriculumean.

Familiekin lan egitea: senideei beharrezko prestakuntza ematea eta haien parte-hartzea sustatu behar dira.

Garai batean, ijito-familia gehienak hezkuntza-sistematik kanpo sentitzen ziren, baina, gaur egun, gero eta gehiagok ulertzen dute beren seme-alabek eskolan ibili behar dutela etorkizun hobea izango badute. Hori ezinbestekoa da seme-alabak eskolan espektatiba hobekin aritzeko; baina, jakina, ez da nahikoa eskolan arrakasta izateko. Alde handia dago ikasleek etxean eta eskolan ikasten dutenaren artean; halako distantzia dago, ikasle ijitoen eskola-martxa egokia ere oztopatu egiten dela. Baina badago modurik distantzia hori murrizteko, ikastetxearen eta familien artean parte hartzeko modu aproposak jartzen badira, ijitoen ohituretara hobeto egokitutakoak; umeek, neska-mutikoek beren inguruan ikasi dutena baloratzen bada, eta haien kultura ikusarazten bada.

Hala ere, ez litzateke nahikoa izango ikasle ijitoek eskolan arrakasta izango dutela ziurtatzeko; izan ere, beren inguruan ez dutenez eskolarekin lotutako baliabiderik eta interakziorik, gainerako ikasleen aldean baldintza okerragoak dituzte. Beharrezkoa da ikastetxean edo inguruan espazioak irekitzea senideen prestakuntza bideratzeko; izan ere, ikerketen arabera, hori da ikasleen eskolako emaitzetan eragin handiena duen faktoreetako bat.

Senideen prestakuntza hori parte-hartzaileen interes eta premietan oinarrituta abiatu behar da (informatika, euskara, hizkuntzak, solasaldi dialogikoak –literarioak, zientifikoak, osasunekoak, bizikidetzakoak–, irakurketa, DBHko ziurtagiria...).

Familien parte-hartzea konfiantzan oinarritutako prozesua da, eta hobera egiten du familiak konturatzen direnean haiek ere tartean izatea lagungarria dela seme-alaben eskolatzea hobetzeko. Eskola eta familia hurbiltzeko prozesu horretan, ijito-elkarteek eta/edo -erakundeek zeregin garrantzitsua dute askotan.

Arlo honetan dauden oztopoak direla eta, irakasleoi dagokigu hurbiltzeko lan honetan ekimena izatea. Hemen horretan laguntzeko argibide batzuk:

- Ijito-kulturaren balio garrantzitsuak kontuan hartzea: emandako hitzaren garrantzia, adinekoekiko errespetua, elkartasuna, familiaren ongizatea...
- Benetako komunikazioa gertatzeko moduko baldintzak eta giroa sortzea: denbora eman behar zaie senideei, lasai hitz egiteko, haien kezkek, ardurak, eskaerak eta abar ezagutzeko.
- Ikastetxearekiko lotura sortzea, derrigorrezko ikasketen ondoko ikasketak amaitzen laguntzeko.

4. Beste dokumentu lagungarri batzuk

4.1. «IJITOAK: AZOKETATIK ESKOLARA ETA INSTITUTUTIK ETORKIZUNERA» IKERKETATIK ATERATAKO GOMENDIOAK (CREADE, 2010)

Antolaketa inklusiboa gelan

- Talde interaktiboak. Halako dinamikak dituzten eskoletan edo institutuetan, ikasle ijitoek emaitza hobeak lortzen zituzten, baina horrez gain, ikasgelan barneratuago sentitzen ziren. Dinamika hau ikasleak gela barruan talde txiki heterogeneoetan taldekatzean datza, bakoitza pertsona heldu baten laguntzarekin (irakasleak eta/edo komunitateko beste pertsona batzuk), ikasleen arteko laguntza- eta elkartasun-interakzioak sustatzeko. Horrela, lan honetako adibideetan erakusten den bezala, elkarrekintza solidarioak sortzen dira ikasleen artean – ijitoen eta ijito ez direnen artean–, eta interakzio horiek positiboak dira elkarbizitzarako eta ikastetxeen kohesiorako, eta, aldi berean, ikaskuntza instrumentala sustatzen da. Izan ere, horrelako taldeek ikaskuntza dialogikoa eta ikasleek erantzukizunak beren gain hartzeko gaitasuna sustatzen dituzte.
- Ikasgela barruko laguntza osagarriak. Irakasgai instrumentalak ematen direnean, helduek boluntario jarduten dute ikasle guztiek ikasgelan arreta indibidualizatuagoa jasotzeko aukera izan dezaten. Hartara, ikasleak mailen arabera ez bereiztea erdiesten da. Laguntzaile horiei esker, ikasleak gehiago jarduten dira elkarrekintzan besteekin, eta parte-hartzaileak ijitoak badira, alde batetik, gizarte-estereotipoak gainditzen dituen eredu akademiko bat osatzen dute, eta, bestetik, ikasle ijitoek bakardade-sentsaziorik ez izaten laguntzen dute.
- Ikasketa-denbora luzatzea. Ikasleen ikasketa-denbora luzatzea bideratuko duten espazio berriak ireki behar dira, bereziki zailtasun handienak dituztenentzat, eta saihestu behar dugu errefortzu gehigarria eskola-ordutegian eskaintzea, horrek ikasleak beren ikasgelatik bereizten dituelako eta ikasturtearen jarraipen normalizatua eragozten dielako. Espazio horietan ijitoak egoteak konfiantza ematen die, eta jarduerak zentzua dutela ikusten dute.

Espektatiba handiak eta kulturarteko curriculum

- Espektatiba handiak sustatzea. Ikaskuntza instrumentalak sustatu behar dira, ikasleen etorkizuneko aukera akademiko eta profesionalak mugatuko ez dituen maximoen curriculum baten bidez. Horretarako, ezinbestekoa da irakasleek ikasleen gaitasunak eta ahalmenak baloratzea, eta aurrera egin eta hobetzen jarrai dezaten animatzea ikasleok.
- Erreferente kulturalak. Normalean ijitoek izaten ez dituzten gizarte-mailetan eta lanbideetan (adibidez, maisu-maistra) dabilzan ijitoak agerian jarri behar ditugu. Ikasle ijitoek eta ijitoak ez direnek pertsona horiek ikusi eta ezagutzeak aurreiritziak hausten eta ikasle ijitoen nahiak eta espektatibak areagotzen lagunduko du.

- *Ijitoen kultura aintzatestea hezkuntza-erakundeetan*. Ijitoen kultura ikastetxearen eduki akademikoetan eta dinamiketan txertatu, ikusarazi eta aintzatesi behar da.

Ikasgelaren antolamendu inklusiboa landu behar da, eta komunitatea horretan inplikat

- *Ikastetxea komunitateari irekitzea*. Oztopo batzuk ikusezinak dira; bada, irekitze horrek halako oztopoak hausten lagunduko digu, familiaren eta erakundearen arteko komunikazioa eroso eta parez parekoa izateko moduan. Horretarako, denok daukagun adimen kulturala izango dugu abiapuntua, eta ez dugu inor parte-hartzetik baztertuko ez inori parte-hartzea mugatuko, titulazio akademikorik ez daukalako edo, gure iritziz, jakin gabe, haiek trebezia hau edo hura dutelako.
- *Familia denek, ijitoek eta besteek, hartu behar dute parte erabakiak hartzen*. Familien parte-hartzea zabaldu behar da, neska-mutilen ikaskuntzarekin zuzenean lotutako egoera guztietan parte-hartzeko aukera izan dezaten; gainera, gune horietan hartutako erabakiek lotesleak izan behar dute. Erabakiak lotesle izanda, beren parte hartzea zentzuzkoa dela ikusiko dute, eta badutela zer esana ikastetxerako eta, oro har, hezkuntzarako garrantzitsuak diren gaietan, eta ez soilik jarduera ludikoetan.
- *Parez pareko elkarrizketa sustatzea*. Komunitate osoaren parte-hartzea erraztu eta indartu egiten da komunikazioan parez pareko elkarrizketa sortzen denean; elkarrizketa horretan, denen ahotsak entzun eta kontuan hartzen dira, denak direlako balekoak, botere-mailan dauden lekuan egonda ere. Edonork du zer esana, bere kultura-jatorria edozein dela ere, eta denen iritziek aintzatespen bera daukate.
- *Gatazkak prebenitzeko eredu komunitarioa*. Gatazken prebentzioa landu behar da, komunitate osoaren inplikazioaren bidez, hezkuntzaren dimentsioei eragiten dieten gai guztiak adosteko. Eztabaida horiek, besteak beste, batzar, bilera edo batzorde espezifikoko batean egin daitezke.
- *Mezu positiboa*. Familiekiko komunikazioa zabaldu behar da, eta beren seme-alabek parte hartzen duten egoera eraldatzaile guztietara hedatu. Horrek esan nahi du ikastetxeak familiekin duen komunikazioa ez dela mugatuko umeak gaizki portatzen direnean abisua ematera. Halako deiak jasotzean, familiek pentsatuko dute beren umeak hezteko modua txartzat duela eskolak. Horren ordez, komunikazioak neska-mutilek ondo eginak eta ondo ikasiak goresteko ere izan behar du.

4.2. JARDUERA ETA ESTRATEGIA METODOLOGIKO INKLUSIBOAK

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Actuaciones_y_estrategias_inclusivas_e.pdf

Aurkibidea

Hezkuntza-esparrua

Eskola inklusiboaren printzipioak eta gakoak

Ikasgelan jarduteko jarraibide batzuk

Estrategiak:


1. PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA
2. IKASLE ENBAXADOREA
3. IRAKURKETA GIDATUA
4. LANKIDETZA-IKASKUNTZA
5. BOLUNTARIOEN LAGUNTZA IKASGELETAN ETA IKASTETXEAN
6. KONTRATU PEDAGOGIKOAK
7. BI IRAKASLEREN BATERAKO JARDUKETA IKASGELAN
8. TALDE INTERAKTIBOAK
9. BIKOTEKA IRAKURTZEN / LEEMOS EN PAREJA
10. GIDARITZA
11. SIOP EREDUA
12. LITERATURA-SOLASALDI DIALOGIKOAK
13. CURRICULUM-SOLASALDI DIALOGIKOAK
14. TUTORETZA PERTSONALIZATUAK
15. BERDINEN ARTEKO TUTORETZAK
16. FLIPPED CLASSROOM
17. GAMIFIKAZIOA
18. VISUAL THINKING

JARDUKETA ETA
ESTRATEGIA
METODOLOGIKO
INKLUSIBOAK

2019-2020

4.3. PROA+ PALANCA-JARDUEREN KATALOGOA. 2021/22 IKASTURTEA

<https://sede.educacion.gob.es/publiventa/catalogo-de-actividades-palanca-proa-curso-202122/gestion-de-centros/25690>



INDICE

AGRADECIMIENTOS

1. INTRODUCCIÓN

2. ACTIVIDADES PALANCA

2.1. ¿Qué es una actividad palanca?	
2.2. Contexto PROA+	24
2.2.1. Objetivos finales del programa PROA+	25
2.2.2. Principios pedagógicos PROA+	26
2.2.3. Escalera hacia el éxito educativo	27
2.2.4. Objetivos específicos	28
2.2.5. Líneas estratégicas, bloques y ámbitos de las actividades	29
2.2.5.1. Bloques	30
2.2.5.2. Alumnado vulnerable	32
2.2.5.3. Actitudes en el centro	32
2.2.5.4. Procesos de enseñanza-aprendizaje	33
2.2.5.5. Centro y administración educativa	33
2.2.6. Requisitos de las actividades palanca PROA+	34
2.2.7. Tipos de actividades palanca PROA+	34
2.2.7.1. Según la función	35
2.2.7.2. Según el agente definidor	35
2.2.7.3. Según el grado de maduración	36
2.2.7.4. Según la obligatoriedad	36
2.3. Estructura de las actividades palanca	37
2.3.1. Las actividades palanca participan del ciclo de mejora continua de la escuela	37
2.3.2. Coherencia entre las actividades palanca genéricas del MEFP y CC.AA. y específicas de un centro de educación	38
2.3.3. Estructura de las actividades palanca genéricas del MEFP y CC.AA.	39
2.3.3.1. Proceso de elección de una alternativa de mejora	39
2.3.3.2. Diseño orientativo de la actividad palanca	44
2.3.3.3. Seguimiento, evaluación y proceso de mejora continua	48
2.4. Aplicación de las actividades palanca por los centros de educación	53
2.4.1. Estructura de la actividad palanca de enseñanza-aprendizaje (aula)	54
2.4.1.1. Identificación y alineación de la AP con PROA+ (cuando se decide incluirla en el plan anual)	54
2.4.1.2. Contextualización del diseño de la actividad palanca (en el momento que se diseña)	56

2.4.1.3. Seguimiento, evaluación y proceso de mejora continua en el momento de su ejecución (en el momento que se evalúa y se toman decisiones)	57
2.4.2. Actividad palanca de atención a la diversidad y gobernanza.....	59
2.4.2.1. Identificación y alineación de la AP con PROA+ (cuando se decide incluirla en el plan anual).....	59
2.4.2.2. Contextualización del diseño de la actividad palanca (en el momento que se diseña) .	60
2.4.2.3. Seguimiento, evaluación y proceso de mejora continua en el momento de su ejecución (en el momento que se evalúa y se toman decisiones)	61
3. CATÁLOGO DE ACTIVIDADES PALANCA MEFP Y CC.AA. PARA EL CURSO 2021/22	63
3.1. Línea estratégica E1. Actividades para seguir y “asegurar” condiciones de educabilidad.	
3.1.1. A101 Evaluación de barreras.....	63
3.1.2. A102 Formación de familias (EINF, EPRI, ESO)	79
3.1.3. A103 Familias a la escuela, escuela de familias (EINF y EPRI)	91
3.2 Línea estratégica E2. Acciones para apoyar al alumnado con dificultades para el aprendizaje	100
3.2.1. A201 Plan de absentismo (EPRI, ESO, BACH, FP).....	100
3.2.2. A202 Acompañando, mejoramos siempre: transición de etapas.	122
3.2.3. A203 Trabajando mano a mano para mejorar: tutorías individualizadas	138
3.2.4. A204 Tutoría entre iguales (EINF, EPRI, ESO).....	155
3.2.5. A205 La transición entre etapas educativas: una carrera de relevos en donde no debemos dejar caer el testigo (EPRI, ESO).....	178
3.2.6. A206 Red de apoyo entre familias (familias EINF, EPRI y ESO)	192
3.2.7. A207 La mentoría escolar (EINF, EPRI y ESO)	201
3.2.8. A208 Mejoramos juntos nuestra competencia digital familia, alumnado y docentes (EINF y EPRIM)	213
3.2.9. A209 Plan de acogida del alumnado inmigrante e integración al aula (EPRI, ESO).....	236
3.2.10. A210 Programa de integración de materias para favorecer la transición de Educación Primaria a Secundaria	248
3.2.11. A213 Leemos en pareja.....	263
3.2.12. A230 Actividades de refuerzo para la mejora y éxito educativo para alumnado y familias (EPRIM y ESO)	280
3.2.13 A231 Activamos la biblioteca escolar y la abrimos a la comunidad (EPRI, ESO, BACH y FP).....	295
3.2.14. A232 Reforzando la comprensión lectora: biblioteca tutorizada (EINF, EPRI, ESO).....	307
3.2.15. A233 Dinamización de bibliotecas escolares (EINF, EPRI, ESO)	318
3.2.16. A234 Plan educativo de entorno. Talleres de estudio asistido y apoyo escolar diversificado (EPRI y ESO).....	331
3.2.17. A235 Creación de contenidos: la Magia de Oz (EINF, EPRI, ESO)	347

3.2.18. A236 Tardes de grupos interactivos (E. PRIM)	359
3.2.19. A260 Docencia compartida (EINF, EPRI y ESO).....	370
3.2.20. A261 Modelo de Respuesta a la Intervención (RTI) en lectura (EINF y 1.er curso EPRI)	382
3.3. Línea estratégica E3. Acciones para desarrollar las actitudes positivas en el centro ..	390
3.3.1. A301 Plan de acogida a alumnado y familias (EINF, EPRI y ESO).....	390
3.3.2. A302 Desarrollo de una cultura inclusiva de aprendizaje a través de un nuevo modelo de orientación.....	406
3.3.3. A303 Sumamos todas y todos (EPRI, ESO y BACH).....	419
3.3.4. A304 Palabras que nos unen (EPRI, ESO y BACH).....	433
3.3.5. A305 Miradas emocionales para mejorar el aprendizaje (EPRI, ESO)	442
3.3.6. A306 Evaluación inclusiva (EINF, EPRI, ESO).....	460
3.3.7. A307 Tod@s aprendemos con y desde la diversidad. Súmate a la transformación (EPRI y ESO)	479
3.3.8. A308 En mi cole cabemos todos y todas (EPRI y ESO)	495
3.3.9. A309 Tiempo de círculo: prácticas restaurativas (Todas las etapas)	506
3.4. Línea estratégica E4. Acciones para mejorar el proceso E-A de las competencias esenciales con dificultades de aprendizaje	522
3.4.1. A401 Secuencias didácticas ODS (EPRI, ESO)	522
3.4.2. A402 Aprendizaje cooperativo en el aula (EPRI)	540
3.4.3. A403 Tertulias dialógicas (EPRI, ESO, BACH y FP).....	549
3.4.4. A404 Procesos de autoevaluación con el alumnado (EPRI, ESO, BACH y FP).....	558
3.4.5. A405 Grupos interactivos (A. P. de zona educativa aplicable en EPRI y ESO).....	572
3.4.6. A406 Diseño de maquetas para explicar tectónica de placas, basado en la metodología de aprendizaje basado en proyectos (ESO y BACH)	590
3.4.7. A407 STEAM Y TIC	604
3.5. Línea estratégica E5. Acciones y compromisos de gestión de centro y para mejorar la estabilidad y calidad de sus profesionales	615
3.5.1. A501 Redes educativas	615
3.5.2. A502 Mejora de la accesibilidad cognitiva de nuestro IES (EPRI, ESO).....	635
3.5.3. A503 Proeducar-Hezigarri (nivel de centro, AP alineada con PEM y PAP).....	646
3.5.4. A550 Plan de acogida del profesorado (profesorado de todas las etapas)	656
3.5.5. A551 Plan de formación de centro (profesorado de todas las etapas)	668
3.5.6. A580 Creación de espacios inclusivos (todos los niveles educativos)	681

